

**Solas-ondoa: Garaziko ikerketa soziolinguistikoak
1982, 2002: ohar batzuk**

**Postface : Enquêtes sociolinguistiques en Garazi
1982, 2002 : quelques commentaires**



Richard Y. **B**ourhis

SOLAS-ONDOA: GARAZIKO IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOAK 1982, 2002: OHAR BATZUK / POSTFACE : ENQUÊTES SOCIOLINGUISTIQUES EN GARAZI 1982, 2002: QUELQUES COMMENTAIRES

Richard Y. BOURHIS¹

Iparaldeko euskarari buruzko ikerketak beti ongi etorriak dira, interes handia baitute, eremu zientifikoan bereziki. Azterketa tresna gisa ere baliagarriak dira, euskararen egoera hobetzeko helburuarekin hizkuntz ekintza egitarauak definitzeko, oraingo hiztunentzat eta geroko belaunaldientzat. Ikerketa diakroniko honek abantaila bikoitza erakusten du belaunaldien arteko jarraipenarengatik: lehenik Jakes Aumaguek (1934-1994), kolegio mailako irakasleak Garaziko ikerketa soziolinguistikoa egiteko ekimena hartu zuen 1982an, eta gero Mixel Aumague, bere semeak, CNRSko ikerketa zuzendari denak, lekukoa eraman du Maia Duguinek 2002an egin duen inkesta Erramun Bachocekin gainbegiraturaz.

Garaziko ikerketa soziolinguistikoa bezalakoek biziki garrantzi handia daukate adituentzat eta hizkuntz eragileentzat, argibide baliosak ekar baititzakete hizkuntza gutitu batez, tokian tokiko egoera batean (Azurmendi & Bachoc, 2001)². Alabaina tokiko hizkuntz eragileek daukate gaitasuna baliabideak ardiesteko eta elkarrekin mugitzeko beren mintzakidego gutitua biziberritu nahiz, gehiengoa duen botere zentralaren bazterretik.

Garaziko ikerketaren bidez informazio zehatzak bildu ditugu toki eta adin bereko bi ikasle multzoei buruz, eta ondorioz denboran gertatu den hizkuntz galeraren neurketa zorrotza egin dezakegu. Tokiko hizkuntz eragileek, irakasleek eta adituek beren indarrak elkarretara ditzakete, ikerketa honen emaitzak eztabaidatzeko eta egitarau bat finkatzeko euskararen erabilera eta baliagarritasuna hobetu beharrez, bereziki Baxenabarreko eta Zuberoko eskualdean.

Orokorki, Garaziko ikerketaren 11-15 urteko ikasleei buruzko emaitzek 2001eko soziolinguistikazko inkestak (*Euskararen jarraipena III* deritzona) Iparaldeko laginean agertu dituen ondorioak osatzen eta aberasten dituzte, alabaina erantzuleak zaharragoak ziren, 16 urte eta gehiagokoak. Garazikoa bezalako beste ikerketa batzuk egin daitezke eskualdeka, Ipar Euskal Herrian dauden beste hiri eta herrietako hizkuntz gora-beheren faktoreak zehazkiago aztertzeko. Ezagutza horiek, lurralde horretan euskara zaintzeko eta aitzinarazteko tokika eramaten diren ekintzak norabidetzeko erabil daitezke.

Oro har Garaziko inkestaren egileek, beren ikerketa komentaturaz, argitasun fidagarriak eta ondorio eraginkorak eman dizkigute. Belaunaldi batetik bestera, euskararen erorketa bati ihardukitzen diogu lurralde honetan, arestian Euskal Herri osoko zati euskaldunena zelarik. 1982ko emaitzek, bai eta ere

1. Psikologiako Doktorea, Quebecoko Unibertsitatea Montrealen. Docteur en Psychologie, Université du Québec à Montréal.

2. AZURMENDI, M.J. & BACHOC, E. (2001). «Reversing language shift: The Case of Basque». In J. Fishman (Ed.), *Can threatened languages be saved?*. Multilingual Matters, Clevedon, Avon, Erres. Bat.

2002ko ikerketak, familietan euskararen gainbehera lazgarri bat eraskusten digute. Etxeko euskal elebakartasunak euskara-frantses elebitasunari lekua utzi dio, eta frantses elebakartasunari ere neurri batean. Galbide hauei nola-bait aurre egin die ikastexetako euskal irakaskuntzaren eskaintzak Garaziko eskualdean. 1980ko hamarkadaren hastapenetik hona erakunde publikoek lehen eta bigarren mailan gehitu dituzten sostengu neurriek, alde batetik euskara ama-hizkuntza (1.H) zutenen gaitasuna indartu dute, eta bestalde euskara bigarren hizkuntza (2.H) duten hiztunen kopurua emendatu.

Ikusi dugu euskara errazkiago transmititzen zaiela haurrei bi gurasoen lehen hizkuntza delarik. Orotan gurasoek badakite berez errazago dela haurrei beren maitasunezko hizkuntza helaraztea, ezinez eta beste hizkuntza bat (2.H), bereziki hizkuntza hau gutitua delarik, bizitza politikoan eta publikoan betetzen diren itzal handiko funtzioetarik baztertua izanki, hori baita oraino euskararen egoera Frantzia. Ipar Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan bezala, datozen urteetako erronka nagusia euskararen jarraipena segurtatzea da, seme-alaben lehen hizkuntza (1.H) gisa, gurasoen ama-hizkuntza euskara baino maizago frantsesa edo gaztelania izanen direlarik.

Garaziko ikerketak oroitarazten digu hizkuntza ezberdineko senar-emazteek, bat euskalduna delarik eta bestea ez, usaian gehiengoaren hizkuntza indartsuena hautatzen dutela ezinez eta gutiengoaren hizkuntza ahuldua. Kanadan exogamiak hizkuntza gutituaren transmisioan duen eraginari buruzko argibideak nabariak dira (Canada, 2003)³. Kanadan, Quebecoko herrialdea kenduz, 2001eko erroldaren emaitzek frantsesaren transmisioa batezbeste %62koa dela frogatzen dute. Aita-amak jatorrizko frantsesdunak direlarik (lehen hizkuntza frantsesa dutelarik), frantsesaren transmisioa %95etan egiten da. Aldiz exogamia egoera batean, guraso bat ez delarik frantsesduna, frantsesaren transmisio neurria %42ra jausten da. Quebec herrialdetik kanpoko frantsesdunetan exogamia ez da salbuespen bat, usaiako egoera baizik. Kanadan 2001ean egin zen erroldaren emaitzek erakusten dute Quebec herrialdetik kanpo bizi diren haur frantsesdunen %60 hizkuntza ezberdineko familietan handitzen direla. Ageri da familia hauetan frantsesaren transmisioa %70ekoa dela jatorriz frantsesduna ez den gurasoak frantsesa ongi dakielarik eta bakarrik %32koa frantsesa ez dakielarik.

Hizkuntza ofizialen legeak (1969) frantsesaren eta ingelesaren egoera ofiziala onartu du Kanada osoan. Gainera, ingelesaren erakargarritasunari aurre egiteko, Gobernu Federalak, bai eta ere herrialde batzuek, sostengu publiko eman diete Quebec herrialdetik kanpo dauden frantsesdunei, frantsesezko zerbitzuak eskainiz gizarte alor askotan nola hezkuntzan, hala hedabideetan, auzitegietan, auzinaldietan eta gobernuaren administrazio batzuetan (Bourhis, 1994)⁴. Bizitza publikoan frantsesari emana zaion sostenguak Quebec

3. Canada (2003). *Le prochain acte : un nouvel élan pour la dualité linguistique canadienne : Le plan d'action pour les langues officielles*. Gouvernement du Canada, Bureau du conseil privé, Ottawa.

4. BOURHIS, R.Y. (1994). «Introduction and overview of language events in Canada». *International Journal of the Sociology of Language*, 105-106, 5-36 or.

herrialdetik kanpo bizi diren erkidego frantsesdunei pizkortasun etnolinguistiko indartzen die, frantsesaren erakargarritasuna gehitzen du ingelesaren aurrean eta, epe luzean, ingelesari buruzko hizkuntz aldaketan neurria gutitzen, egoera exogamikoa bizi diren frantsesdunengan ere.

Quebec herrialdetik kanpo bizi diren gutiengo frantsesdunen kasuak, nola ulertarazten digu Ipar Euskal Herriko gutiengoaren egoera? Argi da euskarak erakundeen sostengua eta egoera ofiziala erdietsiko duen neurrian, aukera gehiago ukanen duela etxeko hizkuntza bezala hautatua izateko, ez bakarrik euskara eskolan ikasi duten gurasoengandik, baina hizkuntza ezberdineko gurasoengandik ere.

Garaziko ikerketak aztertzen duen euskararen gainbehera, 2001eko inkesta soziolinguistikoa Iparraldearentzat agertzen diren hizkuntz gorabeheren antzekoa da. Ikerketa hauek erakusten dute lehen eta bigarren mailako euskal irakaskuntzaren alde hartu diren neurriak ez direla aski Iparraldean erabileraren beharaldia gelditzeko. Gauza bera gertatzen da mundu zabaleko beste hizkuntza gutituentzat (Fishman, 2001; Landry & Rouselle, 2003)⁵. 2001eko inkestaren aitzin-solasak gomendatzen duen bezala, euskararen erabilera publikoaren aldeko sostengua aitzinarazi behar da botere politikoengan, auzuneetako erakundeetan, udaletxeetan eta beste zerbitzu publikoetan, nola post-tetxeetan, hala osasundegietan, enpresetan eta saltokietan. Jatorrizko euskaldunek eta euskaldun berriek toki batzuk aurkitu beharko dituzte, non ere baliagarri eta atsegín baita euskara erabiltzea, nola kiroletan hala aizinaldietan, hedabideetan, tokiko gizarte zerbitzuetan eta lantokietan (Bachoc & Bourhis, 1996)⁶.

Botere publikoek 2002an hizkuntz politika bat eskainiz, aitzinamendu handia egin dute, ikusi baitute zein diren erakundeen sostenguaz baliatu behar duten eremu nagusiak, euskararen egoera eta erabilera hobetzeko. Garaziko ikerketa soziolinguistikoa bezalako inkestek laguntza berri bat ekartzen dute euskara biziberritzeko Ipar Euskal Herriko eskualde guztietan.

Les études sociolinguistiques concernant la situation du basque au Pays Basque Nord sont toujours bienvenues à cause de leur grand intérêt au plan scientifique. Elles constituent en même temps d'utiles instruments d'analyse pour formuler des programmes d'intervention linguistique plus efficaces en vue d'améliorer la place de la langue basque chez les locuteurs actuels et dans les

5. FISHMAN, J. (2001). «Why is it so hard to save a threatened language?». In J. Fishman (Ed.), *Can threatened languages be saved?*. Multilingual Matters, Clevedon, Avon, Erres. Bat.

LANDRY, R. & ROUSSELLE, S. (2003). *Education et droits collectifs : Au-delà de l'article 23 de la Charte*. Les Editions de la Francophonie, Moncton, Brunswick Berria.

6. BACHOC, E. & BOURHIS, R.Y. (1996). La continuité de l'euskara est-elle en péril ?. *Enbata*, 1454, 4-6 or.

génération futures. La présente étude diachronique est doublement bénéfique du fait de sa continuité intergénérationnelle : alors que l'enseignant de collège Jakes Aurnague (1934-1994) eut l'initiative de mener la première étude sociolinguistique en Garazi en 1982, c'est son fils Michel Aurnague, directeur de recherche au CNRS, qui a repris le flambeau en supervisant, avec Erramun Bachoc, l'enquête de 2002 réalisée par Maia Duguine.

Des recherches comme l'Etude sociolinguistique en Garazi sont vitales pour les spécialistes comme pour les acteurs linguistiques parce qu'elles fournissent de précieuses informations sur la situation d'une langue minoritaire dans un contexte local bien précis (Azurmendi & Bachoc, 2001)⁷. Après tout, c'est au niveau local que les militants de la langue sont le plus à même de trouver des ressources et de se mobiliser collectivement afin d'améliorer la vitalité de leur communauté linguistique minoritaire, loin de l'emprise du pouvoir central de la majorité dominante.

Les résultats obtenus en Garazi apportent des informations précises sur deux groupes d'étudiants représentatifs de la même région et permettent une évaluation détaillée de la perte linguistique qui survient à l'intérieur de populations comparables d'élèves du cycle secondaire. Les militants locaux, les enseignants et les spécialistes peuvent unir leurs efforts pour discuter des résultats de cette recherche et pour formuler des plans d'action en vue d'améliorer l'utilisation et la fonctionnalité de la langue basque, particulièrement dans la zone de Basse-Navarre et Soule.

Les résultats recueillis auprès des élèves de Garazi âgés de 11 à 15 ans complètent et enrichissent les données plus générales obtenues auprès de personnes enquêtées plus âgées (16 ans et plus) constituant l'échantillon du Pays Basque Nord dans l'enquête de 2001 intitulée *La continuité de la langue basque III* (enquête 2001). D'autres études locales comme celle de Garazi pourraient être menées pour arriver à une appréciation plus fine des facteurs de maintien ou de perte linguistique dans d'autres villes ou villages du Pays Basque Nord. Cette connaissance pourrait être utilisée pour guider les efforts qui sont faits localement pour améliorer le maintien et l'usage du basque dans les différentes contrées de ce territoire.

Dans l'ensemble, les auteurs de l'Etude sociolinguistique en Garazi ont fourni des interprétations solides et des conclusions réalistes à propos des résultats de cette recherche. Nous constatons une baisse de la transmission intergénérationnelle de la langue basque dans cette région qui, jusqu'à récemment, était la partie la plus bascofphone de tout le Pays Basque. Les résultats des recherches de 1982 et de 2002 révèlent une chute spectaculaire de l'utilisation du basque en famille. L'unilinguisme basque en milieu familial a fait place au bilinguisme basque-français et même à une certaine extension de l'unilinguisme français. Ces pertes ont été quelque peu compensées par l'offre d'apprentissage scolaire

7. AZURMENDI, M.J. & BACHOC, E. (2001). «Reversing language shift: The Case of Basque». In J. Fishman (Ed.), *Can threatened languages be saved?*. Multilingual Matters, Clevedon, Avon, Erres. Bat.

du basque dans la région de Garazi. Les mesures de soutien institutionnel en faveur du basque dans les cycles primaire et secondaire depuis le début des années 1980 ont eu comme effet de consolider la compétence linguistique des élèves dont la langue maternelle est le basque, tout en augmentant la proportion de locuteurs ayant le basque comme langue seconde.

Nous avons constaté que le basque se transmet plus facilement et de manière plus naturelle quand c'est la langue maternelle des deux parents. Partout, les parents trouvent plus facile et plus naturel de transmettre leur première langue socio-affective à leurs enfants qu'une seconde langue (L2), surtout lorsque celle-ci est une langue minoritaire exclue des fonctions prestigieuses de l'Etat et de la vie publique, comme c'est encore le cas pour la langue basque en France. Au Pays Basque Nord, comme dans la Communauté Autonome Basque et en Navarre, le grand défi des prochaines années sera la transmission du basque en tant que première langue (L1) des enfants de la part de parents dont la langue maternelle est le français ou l'espagnol plus souvent que le basque.

La recherche de Garazi nous rappelle que les mariages linguistiquement mixtes favorisent habituellement l'adoption, comme langue du foyer, de la langue de la majorité dominante plutôt que celle de la minorité linguistique. Au Canada les données concernant l'impact de l'exogamie sur la transmission de la langue minoritaire aux enfants sont éloquentes (Canada, 2003)⁸. A l'échelle du Canada moins le Québec, les données du recensement 2001 démontrent que la transmission du français aux enfants est en moyenne de 62 %. Lorsque les deux parents sont francophones (les deux ont le français comme langue maternelle), la transmission du français aux enfants se fait dans 95 % des cas. Mais en situation d'exogamie, lorsque l'un des deux parents n'est pas francophone, le taux de transmission du français aux enfants chute à seulement 42 %. Chez les francophones hors Québec, l'exogamie est devenue la règle plutôt que l'exception. Les données du recensement canadien de 2001 prouvent que les enfants francophones vivant en dehors du Québec font face à une situation où près de 60 % d'entre eux grandissent dans des familles exogames. Il s'avère que la transmission du français dans ces familles exogames est de 70 % quand le parent non-francophone de naissance connaît bien le français mais qu'elle chute à seulement 32 % quand ce parent ne connaît pas le français.

La loi sur les langues officielles (1969) a reconnu le statut officiel du français et de l'anglais au Canada. De plus, pour contrer la force d'attraction de l'anglais, le Gouvernement Fédéral ainsi que certaines provinces accordent un soutien institutionnel aux minorités francophones hors Québec en offrant des services en français dans plusieurs domaines tels que l'éducation, les médias, la justice, les loisirs et plusieurs services gouvernementaux (Bourhis, 1994)⁹. Ce soutien institutionnel accordé au français dans la vie publique con-

8. Canada (2003). *Le prochain acte : un nouvel élan pour la dualité linguistique canadienne : Le plan d'action pour les langues officielles*. Gouvernement du Canada, Bureau du conseil privé, Ottawa.

9. BOURHIS, R.Y. (1994). «Introduction and overview of language events in Canada». *International Journal of the Sociology of Language*, 105-106, pp. 5-36.

tribue à la vitalité ethnolinguistique des communautés francophones hors Québec, augmente la force d'attraction de la langue française par rapport à l'anglais et, à long terme, réduit le taux des transferts linguistiques vers l'anglais même chez les francophones en situation exogamique.

Quelle est la pertinence du cas des minorités francophones hors Québec pour expliquer la situation de la minorité bascophone en Pays Basque Nord ? En clair, plus le statut et le soutien institutionnel seront acquis par la langue basque dans la vie publique, plus le basque aura de chance d'être choisi comme langue du foyer, non seulement par les parents qui ont appris le basque comme langue seconde à l'école mais même par les parents constituant des couples linguistiquement mixtes.

Le taux d'érosion de la langue basque décrit dans l'Étude sociolinguistique en Garazi confirme les tendances observées pour le Pays Basque Nord dans le cadre de l'Enquête 2001. Comme c'est le cas pour d'autres minorités linguistiques dans le monde (Fishman, 2001 ; Landry & Rouselle, 2003)¹⁰, ces recherches montrent que les mesures prises pour l'apprentissage du basque au niveau des cycles primaire et secondaire ne sont pas suffisantes pour arrêter le déclin de l'utilisation du basque au Pays Basque Nord. Ainsi que le recommande l'introduction de l'Enquête 2001, le soutien institutionnel pour l'usage public du basque doit être promu dans les établissements de proximité comme les mairies, les services publics tels que la poste ainsi que dans le cadre des soins de santé, des entreprises et des commerces locaux. Les bascophones d'origine et les élèves qui apprennent le basque comme langue seconde ont besoin de trouver des lieux où il est utile et avantageux d'employer le basque, notamment dans les activités sportives, les loisirs, les mass médias, les services publics locaux et le monde du travail (Bachoc & Bourhis, 1996)¹¹.

La politique linguistique proposée en 2002 par les pouvoirs publics du Pays Basque Nord a identifié les domaines clés où s'exercera le soutien institutionnel dont a besoin la langue basque pour en améliorer le statut et l'utilisation. Les recherches comme l'Étude sociolinguistique en Garazi apportent une nouvelle contribution à la revitalisation dont a besoin la langue basque dans chaque contrée du Pays Basque Nord.

10. FISHMAN, J. (2001). «Why is it so hard to save a threatened language?». In J. Fishman (Ed.), *Can threatened languages be saved?*. Multilingual Matters, Clevedon, Avon, RU.

LANDRY, R. & ROUSSELLE, S. (2003). *Éducation et droits collectifs : Au-delà de l'article 23 de la Charte*. Les Éditions de la Francophonie, Moncton, Nouveau Brunswick.

11. BACHOC, E. & BOURHIS, R.Y. (1996). «La continuité de l'euskara est-elle en péril ?». *Enbata*, 1454, pp. 4-6.